




SORTZE BIDEZKO HOBARIETAN OINARRITURIKO HONDAKIN TASA HOBEKIEN BIRZIKLATZEN DUTENENTZAT



atez•ate

Z a l d i b i a n



Hamar urte dira, Zaldibiako Udala pausoak ematen ari dela hondakinen kudeaketa arduratsu bat egiteko. Hamar urte dira hondakinak bereizteko eta biltzeko atez ateko bilketa sistema abian jarri genuenetik. Bide berean beste pauso bat emateko ordua heldu da. Hondakinak hobekien kudeatzen dituenari hobariak edo bonifikazioak eskaintzera goaz.

Erraz ulertzeko moduan azalduko dizuegu: Hondakin gehien sortzen duenak gehien ordainduko du eta gutxien sortzen duenak gutxiago; BAINA NOLA?

HOBEKIEN BIRZIKLATZEN DUENA saritu nahi dugu, hondakinen tasan %15eko bonifikazioa izatera iritsi ahalko da. Horregatik beharrezkoa izango da hondakinak beti dagokien kuboetan ateratzea.

Organikoa etxoletara eramaten dutenek ere, hiru aukera izango dituzte urtarriletik aurrera: etxean konposta egin, herriguneko auzo konpostgunetan parte hartu edo Kubo marroia eskatu eta etxoletako zintzilikarioetara atera.



ERREFUSA	JASOKETA ALDIAK 3 hilabetean	HOBARIA
<i>Gutxieneko jasoketa</i>	Ateratzen ez bada edo behin aterata	Ez du hobaririk
	2tik 5 jasoketa bitartean	%7
	6tik 9 jasoketa bitartean	%5
	10 eta 11 jasoketa bitartean	%3
<i>Gehienezko jasoketa</i>	12 aldiz ateratzen bada (Beti)	Ez du hobaririk

Oharra: pardel/pixoihal eta egunero atera daitezkeenak ez dira kontaketa honetan kontutan hartuko.

ORGANIKOA	JASOKETA ALDIAK 3 hilabetean	HOBARIA
<i>Gutxieneko jasoketa</i>	Ateratzen ez bada edo 7 aldiz aterata	Ez du hobaririk
	8tik 13 jasoketa bitartean	%8
	14tik 19 jasoketa bitartean	%5
	20tik 23 jasoketa bitartean	%3
<i>Gehienezko jasoketa</i>	24 aldiz ateratzen bada (Beti)	Ez du hobaririk

KONPOSTA HOBARIA %8: organikoarekin ETXEAN KONPOSTA EGIN, AUZO KONPOSTA KOMUNITARIOAN ERABILTZAILA IZAN edo organikoa ANIMALIEN BAZKA bezala erabiltzen dutenei eta kubo bidezko organiko bilketarik egiten ez zaien etxebizitzek KONPOSTA HOBARIAren eskaera egin beharko dute udalean.

2023ko urtarriletik, hondakin tasa hiru hilabeteka kobratuko da ura bezela. Uraren kontagailuan egindako kontsumoa kontutan hartzen den bezala, hondakinen jasoketa kontutan hartuko da.

HOBARIA jasoko dute

- Hondakin gutxien sortzen dutenek
- Etxeko edo auzo KONPOSTA egiten dutenek.
- Organikoa animalientzat erabiltzen dutenek.
- Hondakinak dagozkien kuboetan ateratzen dituztenek.



EZ DUTE HOBARIRIK JASOKO eta tasa osorik ordainduko dute

- Hondakin gehien sortzen dituenak.
- Hondakinak bereizi gabe ateratzen dituenak.
- Hondakinak kuborik gabe ateratzen dituenak.
- Hondakinik ateratzen ez dutenak.
- Etxebizitza hutsik dutenak.



Ahalik eta hondakin gutxien sortzea denon eginbeharra da.

Ezin dugu ahaztu sortu ditugunak berrerabiltzea eta birziklatzea denon ardura dela.

Zaldibian beste pauso bat ematera goaz, gure hondakin organikoak bertan bihurtu nahi ditugu lurarentzat ongarri.

Ekonomia zirkularraren printzipioei jarraituz, gaur egun gastu dena baliabide bihurtu nahi dugu.

Auzo konpostguneak izango dira tresna, eta herritarren konpromisoa giltzarri.



NOLA ESKATU HOBARIA?

Sortze bidezko hobariak aplikatzeko **EZ DUZU ESKAERARIK EGIN BEHAR**. Ontzien erregistroa eguneratuta dago.

KONPOSTA HOBARIA ESKATZEKO ZER EGIN:

Telematikoki edo Udaletxeko harreran bertan bete dezakezu eskaera inprimakia.

Inprimakian **ZEHAZTU** nola kudeatuko duzun organikoa:

- > Etxean konposta egingo duzun.
- > Auzo konpostgunera eramango duzun.
- > Animalientzako bazka bezala erabiliko duzun.



ZALANTZAK ARGITZEKO

Deitu Zaldibiako Udaleko harrera zerbitzura 943 880 357.

BILKETAREN INGURUKO ZALANTZAK

Sasieta Mankomunitateko telefonoa 943 161 555



**ZALDIBIAKO
UDALA**
zaldibia.eus